


AGIRRE JAUREGIA PALACIO DE AGUIRRE



Lehen Erdiaroko dorretxe zahar bat egon zen leku berean eraikia, XIV. mendearen amaieran beharbada, Agirre jauregia Debako udal-barruti osoan historia gehien duen eraikinetako bat da. Sorreran, Irarrazabaltarren familiarena izan zen. Familia hura Agirretarrenkin ahaidetua zegoen; ondoren, Arizmendi eta Otarotarren familiekin ere ahaidetu zen. Guztiak jauregiaren fatxada nagusian dagoen armari heraldikoan agertzen dira. Armarrria kareharri landua da, Euskal Kostaldeko Geoparketik ateratako kareharria.

Fernando de Aguirreren bizilekua izan zen. Fernando de Aguirre Felipe II.aren idazkarietako bat zen eta erregeak kargu edo eginkizun bereziak ematen zizkion. Jauregitik zaintzen zituen gudaroste espainiarrentzat izaten ziren armen fabrikazioa eta ordainketak. Arma haiek Debabarreneko eta Debagoieneko hainbat herritan egiten ziren, baita Bizkaiko herri batzuetan ere, eta Debako portutik esportatzen ziren.




Leopoldo Augusto Cueto

1861ean, jauregia Leopoldo Augusto Cuetok erosi zuen, Valmar-eko markesak. Orduan hasi ziren jauregitik igarotzen garai hartako politika eta kultura arloetako pertsona ospetsuenak, jauregia Espainiako mugimendu erromantiko eta postero-mantikoko gune inportantea bihurtu zelarik. Valmar-eko markesaren bizilekura bizitzera edo bisitan joaten zirenen artean zeuden bere koinatu Angel de Saavedra (Rivas-eko dukea), Valeriano eta Gustavo Adolfo Bécquer anaiak, Juan Valera edo José Zorrilla.

Agirre jauregiaren historiako beste pasarte interesgarri bat azkeneko Gerra Karlistan gertatu zen: 1875eko urtarilaren hasieran, eraikina Karlos VII.aren errege kuartela bihurtu zen.

Egun batzuetan, jauregia Karlos Maria Borboiko eta Austria-Ekialdeko erregegaiak okupatu zuten. Urtarilaren seigarrenean, Karlosek manifestu historiko bat idatzi zuen Deban: "Debako Manifestua" ("Manifiesto de Deva"), gaur egun "Ispiluen Gela" esaten zaion lekuan sinatu zena. Areto horretan izan ziren Karlosek Debako herriari egin zion harrera eta eskumuin-emate ekitaldiak.

Lehenago, 1866an, Isabel II.a erregina eta haren senar Frantzisko Asisko izan ziren jauregian, Alfonsito (gero Alfonsito XII.a izango zena) eta Isabel infanta seme-alabek lagunduta.



Construido sobre lo que fue una antigua casa-torre medieval, probablemente de finales del siglo XIV, el palacio de Aguirre es uno de los edificios con más historia de todo el término municipal de Deba. En sus orígenes perteneció al linaje de los Irarrazabal, emparentado con el de los Aguirre y posteriormente fusionado también con los linajes de Arizmendi y Otorra, todos ellos presentes en el escudo heráldico que muestra el palacio en su fachada principal, realizada con sillaría caliza extraída de los montes del Geoparque de la Costa Vasca.

Fue residencia de don Fernando de Aguirre, uno de los secretarios de Felipe II a quienes el monarca confiaba el desempeño de cargos o comisiones especiales. Desde aquí atendía la fabricación y pago de las armas destinadas a las huestes españolas, armas que eran elaboradas en diversas poblaciones del Alto y Bajo Deba, así como en algunas cercanas poblaciones de Bizkaia, y que eran exportadas a través del puerto de Deba.

En 1861, el palacio es comprado por Leopoldo Augusto Cueto, marqués de Valmar. Será entonces cuando por el palacio desfilen las más importantes personalidades de la política y la cultura del momento, convirtiéndose éste en un importante foco del movimiento romántico y postromántico español. Personalidades como su propio cuñado, Ángel de Saavedra (duque de Rivas), los hermanos Valeriano y Gustavo Adolfo Bécquer, Juan Valera o José Zorrilla fueron algunos de los ilustres visitantes que residieron o frecuentaron la residencia veraniega del marqués de Valmar.



Gustavo Adolfo eta Valeriano Bécquer



Carlos VII

Otro episodio interesante en la historia del palacio de Aguirre sucedió durante la última Guerra Carlista, cuando a principios del mes de enero de 1875 el edificio se convirtió en Cuartel Real de Carlos VII.

Durante unos días, el palacio fue ocupado por el pretendiente al trono Carlos María de Borbón y Austria-Este. El día seis de ese mes, Don Carlos redactaba en Deba un manifiesto que ha pasado a la historia como "Manifiesto de Deva" y que fue firmado en el salón que hoy se conoce como "de los espejos". En este salón tuvo lugar la recepción de Don Carlos al pueblo de Deba y el acto del besamanos.



Ispiluen Gela - Salón de los Espejos

Anteriormente, en 1866 el palacio de Aguirre había recibido la visita de la reina Isabel II y de su esposo Francisco de Asís, a quienes acompañaban sus hijos Alfonso (futuro Alfonso XII) y la infanta Doña Isabel.

Informazio gehiago
Para más información:



Geoparkea
Costa Vasca - Euskal Kostaldea



Geoparks

GLOBAL
GEOPARKS
NETWORK

DEBako UDALA

DEPARTAMEN-
TO GIPUZKOA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EUSKADIAKOHAN GARAPEN
ETA ENBARKATZEEN BAZKA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

